

**SINDIKATUEN PROTESTA.** Espainiako Unibertsitate Legearen «asmo homogeneousatzaileak» salatu dituzte

# Euskal Herriaren unibertsitatea eskatu dute ehunka lagunek EHU eta NUPen

ELA, LAB eta EILASEk deitutako elkarretaratze eta manifestazioetan unibertsitate propioa aldarrikatu dute

Gorane Agirre | BILBO

ELA, LAB eta EILAS sindikatuak egindako deiari erantzunez, ehunka lagun mobilizatu ziren atzo EHU eta NUPen Euskal Herriaren zerbitzuan egongo den unibertsitatea eskatzeko, eta Espainiako Kongresuak onartu berri duen legearen kontra protestatzeko.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, orotara 1.500 unibertsitario inguruk hartu zuten parte *Geure Unibertsitatearen alde. Lege proiektu honi ez lelopean* EHU eta NUPen egindako mobilizazioetan. Leioan eta Ibaetan egindako protestaldiak izan ziren jendetsuenak.

Unibertsitateko irakasle, ikasle eta AZPko langileez gain, euskal irakaskuntza eta euskalgintzan diharduten hainbat erakundetako ordezkariak izan ziren atzo Leioan: besteak beste, UEUkoak, Kontseilukoak, Ikastolen Elkartekoak, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartekoak, Sortzen-Ikasbatuaz-ekoak eta EIREkoak.

Leioan Errektoretzaren egoitzaren aurrean bildu ostean, manifestazioa egin zuten campusean barrena. EHUko gaintzeko campusetan eta NUPen, ostera, elkarretaratzeak egin zituzten.

Mobilizazio horietaz aparte, hiru sindikatuak *Geure Unibertsitatea, Euskal Herriaren Zerbitzuan* agiria kaleratu dute. Dagoeneko EHU eta NUPeko 500 langilek baino gehiagok bat egin dute testuarekin.

ELA, LAB eta EILASEko ordezkariak gogor salatu zuten Unibertsitate Legea. Haien hitzetan, «lege horrek autonomia erkidegoei maila unibertsitario-



JOSU ETXEBARRIOSTE-MIKEL SAIZ

ELA, LAB eta EILASEk deitutako mobilizazioek ehunka lagun bildu zituzten EHU eta NUPen.

an dituzten eskumen apurrak kentzen dizkie, eta, azken finean, bere unibertsitate propioa bideratzeko eskubidea ukatzen

die. Era berean, legeak murriztu egiten du unibertsitatearen autonomia».

Hori ikusirik, Euskal Herriko

gizartearen zerbitzuan egongo den unibertsitatea aldarrikatu zuten. Era berean, Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlari-

## IKASLE KONTSEILUA

### Ikasle greba Gaur NUPen eta EHU

EHUko Ikasle Kontseiluak eta NUPeko Eraldatu taldeak grebara deitu dituzte gaur bi unibertsitate publikoetako 60.000 ikasleak. Greba horrekin, Espainiako Gobernuaren Unibertsitate Legea salatu nahi dute, besteak beste, ikasleek unibertsitate-erakundearen organoetan duten ordezkariak murriztu eta unibertsitateko sarbidea trabatu egiten duelako.

Eraldatu taldeko kideek salatu dutenez, «legeak enpresa sektorea sartzen du unibertsitatean, eta hori oso arriskutsua da. Horretaz gain, ez ditu bermatzen ikasleentzako bekak».

EHUko Ikasle Kontseiluak ere gogor salatu du Unibertsitate Legea. Pablo Gomez-Salazar Kontseiluko lehendakariak esan duenez, «Legeak arriskuan jartzen du euskararen normalizazio prozesua, ez duelako aintzat hartzen ikasleek euskaraz jakitea».

Kontseiluak *Ez zaituzterroan jarri. Unibertsitate legea ez lelopean* egingo ditu gaurko protestak. Izan ere, EHUko ikasleak grebara deituz gain, manifestazioak egingo ditu Bilbo eta Donostian.

tzari unibertsitate lege propioak garatzea eskatu zieten, betiere «eztabaida zabala eta parte-hartzailea» egin ostean.

## JOSE ELORRIETA

ELAko idazkari nagusia



### «Euskal Herriko unibertsitatea behar-beharrezkoa dugu»

«Oso aldarrikapen garrantzitsuari babesa emateko gaude gaur hemen, Leioako campusean. Hau da, Euskal Herriko unibertsitatea behar-beharrezkoa dugu, baina Euskal Herriko unibertsitatea arlo guztietatik ikusita. Baina Espainiako Gobernuak egin duen Unibertsitate Legearekin ikusten da aldarrikapen hori ez dela izango bideragarria; are gehiago, trabatu egiten du. Hala ere, helburu horren alde lan egiten segitu behar dugu».

## RAFA DIEZ

LABeko idazkaria nagusia



### «Ezin da PPren legeari txapela jarri eta lege propioa dela esan»

«Mobilizazio honek bi xede ditu: batetik, Espainiako Unibertsitate Legeari aurre egitea, beste inposaketa bat delako; eta, bestetik, argi adieraztea Euskal Herriko unibertsitateak ezartzeko oinarri berriak ezinbestekoak direla. Ezinezkoa da Espainiako Legeari egokitzapenak egitea, txapela jartzea, eta gero esatea hori lege propioa dela. Oinarriak ikuspegi nazional batek finkatu behar dira, irakasleria propioa izateko, euskalduntze prozesua bermatzeko...».

## ARANTXA URKAREGI

EILASEko eleduna



### «Ausartak izan behar dute Gasteiz eta Nafarroako gobernuek»

«Argi dugu oraindik gehiago borrokatu beharko dugula benetako Unibertsitate Lege propio bat izateko, eta Euskal Herrian dauden unibertsitateak euskal gizartearen zerbitzuan jartzeko. Guk horren alde lanean segituko dugu. Baina Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari ausartak izateko eta benetan dituzten eskumenak erabiliz gure herriak behar duen unibertsitate ereduak garatzeko eskatzen diegu».